

## **2017KO EKAINAREN 12AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- 2016KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA
- 2.- GURUTZE GORRIAREKIN HITZARMENA BIDERATZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 3.- KULTUR ETA KIROL ELKARTEEN ARTEAN LAGUNTZAK BANATZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 5.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).  
Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).  
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).  
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).  
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).  
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).  
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

## **1.- 2016KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA**

Espedientea ikusirik

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2016ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2017ko maiatzaren 11ko 3 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko alean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- 1) 2016ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.

Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

## **2.- GURUTZE GORRIAREKIN HITZARMENA BIDERATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Alkateak, Zegamako Udalaren eta Gurutze Gorriaren artean zerbitzuak prestatzeko bideratu den hitzarmenaren berri ematen du.

Zentzu honetan, hitzarmen honen arabera urte osoko ekintzak beteko lirateke, 2019a amaitzerakoan zerbitzuen berrikuspena burutuko delarik.

Horrenbestez, 2017ko zerbitzuen prezioa 11.500,00 eurokoa izango litzateke, eta 2018 eta 2019ko ekitaldien zerbitzuen prezioa, 12.750 eta 14.000 eurokoa.

Hitzarmena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitakoaren arabera, Zegamako Udalaren eta Gurutze Gorriaren artean zerbitzuak prestatzeko bideratu den hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Adierazitako gastua onartzea, 2017ko Aurrekontu Orokorraren 1.0000.226.01.341.00.2017 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

## **3.- KULTUR ETA KIROL ELKARTEEN ARTEAN LAGUNTZAK BANATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Alkateak, Kultura Batzordeak udalerriko Kultur eta Kirol Elkarten artean dirulaguntzak banatzeko, onartutako prozedura eta programaren arabera, 2016. urteari dagokionez, Kultur Elkarten artean 5.539,50 euro eta Kirol Elkarten artean 9.250,00 euro banatu direla adierazten da, jarraian adierazten denaren arabera:

Kultur Elkarteak

Orkatz Abesbatza .... 3.819,50 euro.

Gazte Herexa ..... 1.720,00 euro.

Kirol Elkarteak

Amezti ..... 1.620,00 euro.

Elkartu Nahi ..... 1.970,00 euro.

Aizkorri F.T. .... 2.070,00 euro.  
Tartalo Etxe P.E. .... 1.620,00 euro.  
Karraztarro ..... 1.970,00 euro.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- 2016. urteko ekintzengatik herriko Kirol eta Kultur Elkarten artean dirulaguntzak banatzeko prozedura eta irizpideak jarraituz, eta horien ondorioz egindako dirulaguntzaren banaketa onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau adierazitako Elkarteei jakinaraztea.

#### **4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 05/0517 erabakia, maiatzaren 25ekoa, haur dinamizatzaile lanetarako kontratatuen zerrenda onartuz.
- 06/0517 erabakia, maiatzaren 25koa, maratoian zenbait lan burutzeko peoien kontratazioa onartuz.
- 07/0517 erabakia, maiatzaren 25ekoa, 3444 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.240,00 eurokoa.
- 08/0517 erabakia, maiatzaren 25ekoa, 3439 fakturen erlazioa onartuz, guztira 18.052,09 eurokoa.
- 09/0517 erabakia, maiatzaren 25ekoa, 3432 fakturen erlazioa onartuz, guztira 32.036,49 eurokoa.
- 10/0517 erabakia, maiatzaren 26koa, 2018ko tokiko jai eguna maiatzaren 21a (Mendekoste Astelehena) proposatuz.
- 011/0517 erabakia, maiatzaren 30ekoa, nominen ordainketa onartuz.
- 012/0517 erabakia, maiatzaren 30ekoa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa onartuz.
- 013/0517 erabakia, maiatzaren 30ekoa, zenbait fakturen erlazioa onartuz, guztira 5.120,29 eurokoa.
- 014/0517 erabakia, maiatzaren 31koa, San Bartolome jaietan garbiketa bereziengatik tasaren kobrantza bideratzea onartuz.
- 015/0517 erabakia, maiatzaren 31koa, Orkatz abesbataari San Bartolome jaietan txosna jartzeagatik tasaren kobrantza bideratzea onartuz.

- 01/0617 erabakia, ekainaren 1ekoa, Maderas Portillo enpresari pista erabiltzeko baimena eman ez eta fidantza ezarri.
- 02/0617 erabakia, ekainaren 7koa, Aitxuri Guraso Elkarteari "kirol festa" antolatzeko baimena eman.

## 5.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira egiten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirak eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasotzeko, nik egiaztatutako eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

### Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017ko .....k .....

O.E./ VºBº  
ALKATEAK/EL ALCALDE

### Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2017.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO